

LIBURU aurrerapena >

Antzararen bidea

Ilehoriak lagunei begiratu die orain. Mutiko irriberak zigarroa ezpainetatik zintzilik dauka, eta ezkerreko begia erdi itxita, bere aitak kasinoan kartetan ari denean eduki ohi duen bezala. Mutiko serioak, berriz, zigarroakina erpurua eta hatz erakuslearekin heldu eta, jernaleroen beste keinu ohiko batekin, hartxintzarretara bota du, hamakatik mugitu gabe. Irriberak salto egin du orduan eskaileretatik behera, eta zigarroakina hartu du.

—Ideia bat zeukaat! —esan du. Ilehoria atezuan jarri da.

—Zer? —serioak, hamakatik jaitsi bitartean.

—Antzarei emango zieagu erretzen! Goazen!

Zigarrokina eskuan hartu, eta lasterka joan da hartxintzarretatik oilategi aldera, algaraka, ilehoriaren errekerimenduei entzungor.

Pauma batek buztana zabaldu du mutikoak iritsi direnean, baina berehala erretiratu da oilategi atzera, ikaratuta. Tarte luze bat egin behar izan du horrela, gainera, mutikoei ihesi, beraiek ere atzealde horretara baitzihozten. Bertan belztu txiki bat dago, eta, erdian, ur-putzu koxkor bat. Putzua-aren inguruan, lepota tente jarrita eta iritsi berriei begira-begira, antzarak aurkitu dituzte, dozena pare bat edo, patxada lasaian.

Ez bat ez bi, irriberak eta serioak antzara baten gainera salto egin eta gogor heldu diote. Gainerako antzarak alde egin dute arrapaladan. Aurrena, oilategi aldera jo dute, baina, ilehoriak harako bidea moztan ziela ikusirik, txoperarantz eman dute buelta, ikara batean, eta bertan bilatu dute aterpe, karraka egiteari utzi gabe.

Antzarak mutilen pisua gaine-
tik kentzeko ahaleginetan jardun du tarte batez, baina laster amore eman du, alferrikako astindu batzuk jo eta gero. Orain serioak lepotik belzten dio, gogor, eta irribera

ganean jarrita dago, bi zigarroak ezpainetan dituela, iji eta aja. Ilehoriak eskua jarri du antzararen gorputzaren ganean, eta haren bihozkadak eta dardarizkoak sentitu dituenean, baztertu egin du inpentsan, izuak hartuta. Irriberak zigarroetako bat eskuan hartu du orduan, eta antzararen mokoan jartzen saiatu eta saiatu aritu da alferrik, guztiari begira-begira dagoen ilehoriari «lagunduiguk, joder, lagunduiguk!» oihukatzen ziola. Barrez lehertzen ari da irribera halere. Ito beharrean dago. Antzararen lumaje leunak irrist egiten dio izterren artetik.

—Kilimak egiten ez zizkidak ba! Egon geldi, arraioa!

Xurgada bat kendu dio zigarroari, eta antzararen hanken artean jarri du. Kea barre kolpeekin batera botatzen ari da:

—Eta ipurtzulotik sartzen badiogu? —jarraitu du—. Igual gus-tatu eta guzti egingo zaio!

Halako batean itzal handi bat ol-dartu zaie gainera, eta dinba-dan-ba zartakoak eta ostikoak ematen hasi da, hitzak lerdearekin batera jaurtitzen zituela:

—Kaguensos, ume arraioak! Neronek sartuko dizkizuet horrelako hamaika atzeko aldetik!

Oraindik belar ganean zilipur-dika, ilehoriak berehala ezagutu du osaba gaztearen ahots patta-rrak lakartua.

—Ijitoak ez beste! —jarraitu du iritsi berriak—. Zuen aiten konbenio-ostiekin nahikoa ez bagenu be-zala!

Zutik dago. Alkandorako bo-toiak aske ditu paparrean, oraindik hazi ez zaion biloa erakutsi nahian ziurrena. Airean hartu eta gero, segitu du, hitzak arrastatuz:

—Zer? Aitek bidalita? —Gora etorri zaion listu-kolpea irentsi du. Gero, ilehoriaren presentziak ohar-tu da—. Eta hik zer egiten duk he-men, sasikumea?

Txu egin du ozen eta, besoa mu-turretik pasatu eta gero, bazter ba-tera joan da pixa egitera, balantzaka. Ilehoriak izua nabaritu du la-gunen aurpegietan. Sendo hartzen du arnasa Demetriok, es-kua hankartearen darabilen bitarte-an. Txakurrak hurreratu zaizkio, baina keinu batez uxatu ditu.

—Segi txokora, alajainkoa! Zer-tarako behar zaituztet, txakur alu ezdeusak?!

Pixa erreka txorrota luze-lodi batean erori da asunen gainera. Mutikoak elkarri begira egon dira tarte horretan, alde egin ez egin, dudatan bezala, baina azkenean izu-laborriak kieto-kieto edukia-zi ditu, atezuan.

—Hi, Rubio! —zuzendu zaio ilehoriari, oraindik bizkar eman-da—. Ez al nian esan bisita gehia-gorik ez egiteko?

—...
—Zer, katuak jan al dik mihia ala?

Azamar bustiak praketan igur-tzi, jiratu, eta mutikoengana egin du. Eskuak saketan sartuta da-ramatza, harro-harro. Oin punte-tan dabilela iruditu zaio ilehoriari.

—Eta hi? —bultza egin dio serio-ari—. Zer arraio ari hintzen antzara-ren lepoari helduta? Gero, noski, hire aita etorriko zaidak kexaka, soldatak, lan-baldintzak —ahotsa behartu du azken hau esan duene-an— eta antzeko ergelkeriekin aho-beteka. Komunista nazkaga-rria!

—Antzarekin jolasten ari ginen —moztu dio irriberak, antzarak seinalatuz. Antzara guztiek jada taldea osatu dute eta, itxuraz, la-saia, putzura hurreratu dira ura edatera.

—Jolastu? —Demetriok, irriba-rretsu. Sudurra zimurtu eta ume ahotsa jarri du jolastu esan duene-an. Argi dago gozatzen ari dela mu-tikoei eragiten dien beldurrare-kin—. Horri esaten diozue jolas-



Jokin Muñoz
idazlearen (Castejon, Nafarroa, 1963)
Antzararen bidea
nobela kaleratuko du aurki Alberdaniak. Eli (edo Lisa) naufrago bat da. Nola edo hala iraun ahal izan du bere nora ezean, bat-bateko eztanda batek seme bakarra, Igor, lapurtu dion arte. Latza zaio bakardadea, baina are latzagoa ez jakitea. Nor ote zen Igor? Zerk eraman zuen Salouko apartamentu hartara, hamaika puskatan xehe-xehe eginda gorpu geratzera? Zati hau eleberraren hasierako ataletik hartua da eta XX. mendeko zoko urteetan kokatuta dago.

tea? —segitu du, lurreko zigarroki-nak buru kolpe batez seinalatuz. Eta barrez lehertu da, ozen, es-kuak belauan ganean jarririk.

Umeek elkarri begiratu diote. Geldi-geldi daude, algaren ondotik zer etorriko.

—Benetan jolastu nahi duzue antzarekin, mukizu horiek? —esan du orduan, eta oilategian sartu da, balantzaka oraindik. Berehala azaldu da, aitzotzar bat es-kuan. Estropezuka —bitan irrista-tu da putzu inguruko lokatzean—, antzarenganaino egin du, eta haie-tako bat elkarri du, itxuraz umeek-in borrokan aritutako berbera, le-potik helduta.

Ilehoriak lagunaren hauspoak aditzen ditu gora eta behera zoro batean. Listua irentsi du. Antzara-ren lepota harri baten kontra luze jarria dauka Demetriok, eta aitzo-aren ahoa haren gainetik pasatu eta pasatu ari da.

—Zuek, jernalerokume horiek! —Irriberari eta serioari zuzendu zaie—. Zenbat metro uste duzue egingo dituela lepota moztuta? Tira, esan!

Metro batzuk haratago hasten den txoperari begira dago, eta ha-raxe zuzendu dituzte begirada izu-tuak hiru mutikoei.

—Demetrio... —saiatu da esa-ten ilehori.

—Hi isil hadi, Rubio! Hau ez zihok hirekin! —oihukatu dio, al-dartea erabat aldatuta. Gero beste-ei zuzendu zaie atzera, kopeta era-bat belztua—. Esan, arraioa! Zen-bat! Zuek ere mihirik gabe geratu zarete ala? Aitak hitzontzi galan-tak dituzue ba! Alajainkoa! Nork ematen dizue jaten, e? Nori esker bizi zarete, kaguensos!

Antzararen ganean jarria dago. Lerde hari bat ahoaren alde bate-tik erortzen ari zaio, ufadekin bate-ra. Espartin bat galdu du arestiko lasterraldian, eta lokatzak ia era-bat estaltzen du oinaren zuria. Umeek mutu segitzen dute. Oiloen karakak belarrietara iristen zaiz-kie, eta untzien ezinegona kaiolen barruan. Ilehoriak aire falta naba-ritu du. Itolarria. Aizto tzarra ikus-ten du Demetrioren eskuan, antzara-ren lepota estutuz, moztu ez moztu. Odol marra bat egin dio aitzoaren aho zorrotzarekin lepo-ko lumaje zurian. Serioa eta irribe-ra dagoeneko negarrez ari dira.

—Baiez txoperaraino iritsi! —oihukatu du Demetriok halako batean, eta, lepota aizto kolpe batez moztuta, belar ganean jarri du an-tzara.

Lasterka bizian atera da gorputz odolusten hasia. Zabuka doa, orain ezkerrean, orain eskuinera, Demetrioren algarek lagun. Muti-ko ilehoriak ez du txoperaraino se-gitu begiradaz, berehala begiak itxi baititu, eta pixaren beroa sen-titu du galtzetatik behera. Horre-la, ez du antzara ikusi, txoperarai-no iritsita, makal beltz baten oine-tan gorpu erori denean, oraindik azken hatsetan bildua.



JOAQUIN SORRILLA